



Ixiar Urdangarinek bigarren urtez segidan irabazi du eta gizonezkoetan, aurreko hernaniarra, Joseba Mayo, zazpigarren sartu da sailkapen orokorrean.

Ixiar Urdangarin eta Xabier Artola onenak Azeri Bilan


■ 467 korrikalari izan ziren larunbateko proban ■ Gizonezkoetan, Joseba Mayo izan zen aurreko hernaniarra ■ Beteranoetan, Eva Esnaolak 2garren egin zuen eta Roxario Pikabeak hirugarren.

IXIAR Urdangarin hernaniarra irabazi du aurten ere Azeri Bila herri krossa emakumeen kategorian, iazko garaipenari segida emanez. Urdangarinen denbora 33:45 izan zen, 9 km-ko zirkuituan, iaz baino 22 segundo gutxiago. Urdangarinen atzetik Lurdes Oartzabal (34:57) eta Rosa Torinos (35:45) sartu ziren. Gizonezkoetan, Xabier Artolak egin zuen aurrea, 29:51 eginda, iaz Gorka Gomezek baino minutu pasa gehiago. Aurten, ordea, ez da hernaniarririk izan aurreko hiru postuetan. Artola alde eginda sartu zen helmugan eta Xabier Iturralde (30:09) eta Alfonso Irazusta (30:25) etorri ziren bere atzetik.

Hernaniarrak

Joseba Mayo (31:29), Ismael Mateo (31:36) eta Sergio Roman (31:55) izan ziren helmugan sartu ziren aurreko hiru hernaniarrak, gizonezkoetan. Emakumezkoetan, Urdangarinek alde dezentea kendu zien herriko gainontzekoei. Bigarren Sarah Hansen (37:29) sartu zen eta hirugarren Eva Esnaola (37:46). Esnaolak, herrikoetan hirugarren izateaz gain, beteranoetan bigarren egin zuen eta Pikabeak hirugarren (31:59).

Kategoria bakoitzeko hiru aurrekoek izan zituzten trofeoak eta Rikardo Ramos CDHko lehendakariak banatu zituen. Horietaz gain, sari bereziak ere izan ziren.



Ixiar Urdangarin eta Xabier Artola 251 dorsalarekin.



Gaztetxoetan ere Azeri Bilak korrikalari asko bildu zituen larunbatean.

Gaztetxoetan ere parte hartze ona

CDHko Atletismo sailak iaz hasitako biderei jarraituta, aurten ere gaztetxoek protagonismoa berezia izan dute Azeri Bilan. 467 korrikalarietatik erdiak gaztetxoak izan ziren. Guztiei medaila bana eta goxoki boltsa eman zitzaizkien sari. □

AZERI BILA SAILKAPENA

Senior Mutilak

1	Xabier Artola	29:51
2	Xabier Iturralde	30:09
3	Alfonso Irazusta	30:25
4	Iosu Mazisidor	30:39
5	Anartz Etxeberria	30:43

Senior Neskak

1	Ixiar Urdangarin	33:35
2	Lurdes Oartzabal	34:57
3	Rosa Torinos	35:45
4	Sarah Hansen	37:29
5	Eva Esnaola	37:46

Hernani (gizonezkoak)

1	Joseba Mayo	33:35
2	Ismael Mateo	34:57
3	Sergio Roman	35:45
4	Roxario Pikabea	31:59
5	Asier Larrañaga	32:01
6	Felix Merino	32:39
7	Aitor Zudaire	32:50
8	Jose Luis Barradas	33:50
9	Ibon Iriondo	34:06
10	Jose Mari Altuna	34:19
11	Agus Garin	34:38
12	Joxe Mari Satana	34:43
13	Gorka Kijera	34:55
14	Juanra Jodar	35:06
15	Xabier Iradi	35:20

Hernani (emakumezkoak)

1	Ixiar Urdangarin	33:35
2	Sarah Hansen	37:29
3	Eva Esnaola	37:46
4	Mariaje Azpirolea	41:45
5	Ainara Etxeberria	44:33
6	Susana Elosegi	47:04
7	Mirari Otxandorena	47:12
8	Maite Garayoa	50:38
9	Juani Gomez	51:14
10	Garbifé Tijero	52:23
11	Maria Jesus Urtaza	52:24
12	Maixi Irastorza	53:10
13	Itxaso Rodriguez	54:41

SAN ANTONIOAK

0421 zenbaki saritua

SAN Antonio jaietan, Ereñotzun, zozketa izaten da urtero. Zenbaki saritua 0421 izan da aurten. Zorte hori izan duenak lau lagunentzako afaria izango du Fagollaga jatxean, edo 300 euro dirutan. □

www.kronika.net
kronika
Intemetan helbide berrian

PROKOLOR ZENTRUA
PL Landaribar, s.l.
► Pintatzeko ekipaok
► Industri ta dekoraziorako pinturak
► Pintatutako paperak
Kardaberaz 45 - Telf. 943 55 21 31 - Hernani

HERNANI HIZKUNTZAK
Gure Ingelesetxea
ZORIONAK Edurne
"Cambridge First" gainditzeagatik ("Merit" atera duen beste bat)
UDAKO IKASTARO
ERDI-TRINKOAK HERNANIN, IRAKASLE NATIBOekin
AURREMATRIKULA ZABALIK
(2003-04 ikasturtekoa ere bai)
Deitu Alan / Joe
☎ 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1

GOXOKIAK ROMBER okindegia
GOZOKIEN ELMENTZIOAN
Karmelo Labaka 6 - behea
Tel.: 943 331 123

DORRONSORO
OKINDEGIA
Bertan egindako kalitatezko ogia
J.Dorransoro Okindegia, S.L.
Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI



Galiziarren musika eta euskal dantzen nahasketak oso estimazio handia izan du.

Preludioak oso kritika ona jaso du eta ETBk larunbat eguerdian botako du

■ Joxan Goikoetxeak nabarmendu du emaitza on hori urte askotan Hernanin musika, kantua eta dantzaren inguruan egin den lan guztiaren fruitua izan dela.

SAN Joan Jailetako Iragarpen kontzertuak oso gusto ona utzi du eta kritika onak jaso ditu. Preludioak 10 urte betetzen zituen aurten eta apustua ere goi xamarretik egin zuten antolatzaileek. Emaitza ere halakoxea izan da. Gudarien plaza aspaldian gutxitan bezala betzen larunbat gauean. Joxan Goikoetxeak Preludioak izan dituen kalitatea eta barietatea nabarmendu ditu. Aurten asko ziren garrantzia eta sinbologia

haundiko emaldiak: Ekintza taldea, Sarriegitarak, Erronda... Horiekin batera, jenderik gehienak aipatzen zuen funtzioetako bat galiziarren musika eta euskal dantzen arteko nahasketa izan zen.

Joxan Goikoetxea ibili da Preludioan koordinatze lanetan. Bere ustez, arrakasta honen atzean urte askotako lana dago. Goikoetxearen hitzetan, urte askotan Hernanin musika, kantua eta dantzaren ingu-

ruan lan asko egin da, bai musika eskolan, bai kantu eta dantza taldeetan, eta era berean, asmatu egin lan hori dena bildu eta forma ematen.

Emisioa aurreratu

Kronikak jakin duenez, Preludioak ETBtik ere oso kritika ona jaso du. Hasieran, urtero bezala, San Joan bezperan botatzeko asmoa zuen, baina, egokiago jo eta larunbat honetan botako du, eguerdiko 11:00k aldean. □



San Juan Erronda Preludioan. Erdian Txirrita kantari, Aterpe bertsolariaren ahotik.

HERRIKO XAKE TXAPELKETA



Ezkerretik, Isidro Esnaola, Breogan Estevez, Fernando Esnaola eta Jon Altuna Oxan.

Fernando Esnaolaren bigarren txapela

HERRIKO Xake txapelketako sariak larunbatean banatu ziren Goiz Argi tabernan. Iaz bezalaxe aurten ere Fernando Esnaolak jantzi du txapela, txapelketako lau onenen arteko liga irabazita. Breogan Estevez eta Jon Altuna Oxan gelditu dira bigarren eta hirugarren. Laugarren, berriz, Isidro Esnaola, txapelketako aurreneko txapelduna izan zena. □

ELA eta CCOO sindikatuek kritikatu egin dute Ongintzako Lehendakariak eta Langile Komiteko buruak sinatutako akordioa

■ Salatu dute akordioak Langileen Asanblearen babes eskatzen zuela eta ez dela asanblearik egin.

JOAN den astean Imanol Beroitz Ongintzako Lehendakariak eta Mertxe Gastesi langileen ordezkariak akordio bat sinatu zuten langileen egoera egokitzeko Diputazioarekin hitzartutako akordioa. Beroitz eta Gastesik sinatutako akordioa kritikatu egin dute Ongintzako ELA eta CCOOk. Bi sindikatu horien esanetan, hitzarmen horren 4garren puntuak esaten du akordioa Langileen Asanbleak onartu behar duela. ELA eta CCOOk diote puntu hori ez

dela bete langileen asanblearik egin ez delako. Era berean, bi sindikatuok azaldu dute hitzarmenak ez dituela betetzen Konbenioan lotutako lan baldintzak lan egutegiari dagokionez: oporrak, jorndatik jorndara bitarteko etena eta abar.

CCOO eta ELA sindikatuen iritzirako joan den astean Ongintzako Lehendakariak eta Langileen ordezkariak sinatutako akordioa betetzeak kaltea ekarriko du helduei ematen zaien zerbitzuan. □

■ HITZ BITAN

✓ DOBERA

Hernaniko argazki zaharren erakusketa. Dobera Euskara Elkartek Hernaniko argazki zaharren erakusketa jarri du Larramendi kalean, lehenago ordenadore aretoa zegoen lekuan. Doberak 10 urte bete ditu aurten eta urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan jarri du erakusketa. Larunbata arte egongo da argazki zaharrak ikusteko aukera, 11:00etatik 13:00-etara eta 16:00etatik 21:00etara.

✓ ANDRAGOTO

Irakeko gerran izandako brigadista. Jabier Barandiaran Iraken brigadista egon zen pertsonak Andragoto hitz egingo du gaur, arratsaldeko 19:00etan. Bestalde, bihar, berriz, Manuel Rodriguez de Mendarozketa 91 urteko anarkista donostiarrak hitz egingo du. Rodriguez de Mendarozketa bere bizitzari buruz, anarkismoari buruz eta beste hainbat gaiari buruz ariko da, 20:00etatik aurrera.

✓ IGERIKETA

Igerilarien bilera ostegunean. Hernaniko Igeriketa sailak igerilari guztiak bilera deitu du bihar arratsaldeko 18:00etarako. Igeriketa sailaren esanetan, bilerara joatea derrigorrezkoa da gauza garrantzitsuetaz hitz egingo delako datoren urteari begira: besteak beste, taldeen egitura, ordutegiak, bakoitzaren etorkizuna eta abar. Bilera igeriketa taldeko lokalean izango da.

✓ MENDIRIZ MENDI

Nafarroara asteburu pasa gaztetxoentzat. Mendiriz Mendik gaztetxoentzat mendi irteera antolatu du datorren larunbat eta iganderako. Larunbat goizeko 09:00etan da ateera, eta Adi (1.458 m) eta Lindux (1.220) mendiak igoko dituzte. Prezioei dagokionez, gaztetxoena 20 euro da eta helduena 40 euro. Prezio horretan sartzen dira bidaia, afaria, loa eta gosaria. Lotarako zakua norberak eraman behar du. Informazio gehiago Mendiriz Mendin bertan, 943-33275/ 689-585993.

✓ GALDUTAKOAK

Giltza sorta bat azaldu da Ereñotzun. Giltza sorta bi mosketoiri lotuta dago. Irrintzi tabernan dago jasota. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- ▶ Gauzez: Rodriguez
Lasarte. Nagusia 42
☎ 943 361774

IRAGARKI MERKEAK

MOVIL HOME (karabana) bat alokatzen da Landasetan. Tarifa prezioetik %25eko deskontua. Uztaila eta Abuztuan. Deitu: 943 33 02 12 - 635 72 99 28